



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko otsailaren 23a

29. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—10-22/LEY-00015. Foru Legea, kanpoko nafar herritarrekiko harremani buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—10-23/MOC-00012. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, LGTBI+ pertsonei arreta integrala emateko Kattalingune zerbitzua ematen jarrai dezan, 2022ko abendura arteko kalitate-parametroak mantenduz edo hobetuz, horretarako behar diren giza baliabide eta baliabide ekonomikoekin hornituta. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).

—10-23/MOC-00018. Erabakia gerrari eta haren ondorioei buruz. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).

—10-23/MOC-00020. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazteriaren errealitatera egokitzeko. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).

—10-23/MOC-00008. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan musika-ikasketa profesionalak Nafarroatik kanpo egiten dituzten ikasleen ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatzeko. Hezkuntza Batzordeak onetsia (13. or.).

—10-23/MOC-00009. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen da berdintasun-teknikarien sarearen egoera hobetzeko proposamen bat egin dezan. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak onetsia (13. or.).

—10-21/MOC-00044. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har dezan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko haurren eskolatzeak familientzat duen kostua. Osoko Bilkurak ezetsi du (14. or.).

—10-23/MOC-00015. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da berehala har ditzan bere gain, bere aurrekontuaren kontura, Iruñeko eta Iruñerriko begizta desagerrarazteko obra guztiak, Etxabakoitzeko tren-geltoki berriko obrak eta Volkswagen Navarra zeharkatzen duen trenbidea desagerrarazteko obrak barne. Osoko Bilkurak ezetsi du (14. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00015. Foru Legea, kanpoko nafar herritarrekiko harremanei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, kanpoko nafar herritarrekiko harremanei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, kanpoko nafar herritarrekiko harremanei buruzkoa

1. artikulua.- Xedea.
2. artikulua.- Aplikazio-eremu subjektiboa. Kanpoko nafar herritarrak.
3. artikulua.- Definizioak.
4. artikulua.- Printzipio orokorrak.
5. artikulua.- Helburuak.
6. artikulua.- Kanpoko nafarren eskubideak.
7. artikulua.- Itzulera.
8. artikulua.- Kanpoko nafar komunitateak.
9. artikulua.- Kanpoko nafar komunitate birtualen aitortza ofiziala.
10. artikulua.- Kanpoko nafar komunitateen federazioak.
11. artikulua.- Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofiziala.
12. artikulua.- Nafar Komunitateen Kontseilua.
13. artikulua.- Lankidetzarako tresnak.

Xedapen iragankor bakarra. Kanpoko nafar komunitateen araubide iragankorra.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamenduak egiteko gaikuntza.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

HITZAURREA

Nafarroa, hainbat arrazoi tarteko, emigrante-lurra izan da eta da. Jada XVI. mendean emigrazio-fluxuak egon zirela frogatuta dago. Emigrazioa azken bi mendeetako gure historiako gertakari esanguratsu bat da, epe garrantzizko batzuk eduki dituena; batez ere, 1880. eta 1930. urteen artean eta 1969. eta 1973. urteen artean. Bi tarte horiek Nafarroak XIX. eta XX. mendeetan izan zuen bilakaera soziodemografiko eta ekonomikoa markatu zuten.

Lana bilatzea izan da, historian, nafarrak beren lurra uztera bultzatu dituen arrazoi nagusietako bat, haien herrietan halakorik gutxi edo batez ere ez izaki. Izan ere, krisi ekonomikoaren ondorioz baina baita gerraren ondorioz ere sorturiko pobrezia-erengatik eta errepresio politiko-erengatik Nafarroan bizitzea, Estatuko gainerakoan bezala, zaila gertatu zen une jakin batzuetan, milaka nafarrek munduko beste eskualde eta herrialde batzuetara alde egin zuten, etorkizun hobea baten esperantzaz.

XXI. mendeko bigarren hamarraldian migrazioaren fenomenoak berriz hartu du indarra, nahiz eta emigranteen soslai oraingoan bestelakoa izan, bai daukaten profilarengatik bai haien motibazioengatik. Horrela, esan dezakegu inflexio-puntu berri batean gaudela, bat datorrena 2008ko finantza-krisi globalarekin eta zerikusia duena gizarte irekiko eredu batekin, zeinean gazteek, lehen baino maizago, kanpora jotzen baitute beren ibilbide profesionalari hasiera emateko.

Beren sorterritik urruti dauden nafar komunitateak egoteak elkartezaletasuna piztu zuen XX. mendearen hasieratik, eta halatan herrialde eta

autonomia erkidego batzuetan hainbat nafar edo euskal-nafar etxe, biltoki eta zentro sortu ziren, non elkartzen baitira bai lehenbiziko belaunaldiko emigranteak bai horien ondorengoak, sorterriarrekin dauzkaten loturak gordetzeko eta areagotzeko borondate tinkoa daukatenak.

Nafar komunitate hauek, de facto, Nafarroako Foru Komunitatea atzerrian proiektatzeko eta haren nortasunaren ikurrak ezagutarazteko "enbaxadore" gisa dihardute; aldi berean, Nafarroatik kanpo bizi izanda ere Nafarroarekin lotura berezia duten pertsona guztien elkartzaile dira. Nafarroako aitortu egin behar du komunitate horiek egindako lanaren balioa. Alde horretatik, Nafarroako Gobernuak laguntza eman die dirulaguntza-politika baten bidez, zeinaren helburua baita laguntzak ematea funtzionamendurako, azpiegituretarako eta Nafarroarekin zerikusia duten kultur jardueren antolamendurako gastuak estaltzeko.

Baina beharrezkoa da, halaber, lotura bat ezartzea elkarte horietako kide izan gabe beren lurra-ekin lotura berezia sentitzen duten atzerriko nafarrek eta haien ondorengoekin. Helburu horren alde egiten du Nafarroako Gobernuak 2019an onetsi zuen Kanpoko nafar herritarrekiko harremanetarako estrategiak (NEXT), hiru ardatzen inguruan: Komunikazioa/konexioa, Atxikipena/itzulera eta Lankidetzak aktiboa.

Horregatik beharrezkoa da lege-esparru bat ezartzea, Nafarroako administrazio publikoen eta kanpoko nafar elkarten arteko harremanak arautzeko, bai eta, modu integralago batean, Nafarroako administrazio publikoen eta kanpoko nafarretako bakoitzaren arteko harremanak ere.

Lege-esparru horrek, helburuak modu eraginkorrean betetzeko ezarri behar diren betebeharrak eta eskubideak ezarri ahal izateko, foru lege maila eduki behar du, eta kontuan eduki behar du Konstituzioaren 42. artikuluko agindua, zeinak Estatuari honakoa ezartzen baitio: "Estatua bereziki arduratuko da atzerrian diren langile espainiarren eskubide ekonomiko eta sozialak zaintzeaz, eta langile horiek itzultzea izango du jomuga bere politikan". Artikulu hori oinarri hartuta egin zen, halaber, abenduaren 14ko 40/2006 Legea, Kanpoan Dauden Herritarren Estatutuarena, eta beste autonomia erkidego batzuek gai horren inguruan garatu duten berariazko erregulazioa.

Esparru juridiko horretan, kontuan hartu behar da, halaber, abenduaren 26ko 52/2007 Legea, Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aitortu eta zabaldu eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen (Memoria Historikoaren Legea). Izan ere, gerraren

eta diktaduraren ondorioz asko izan ziren atzerriara jo behar izan zuten espainiarrak, eta haien artean, nafar asko.

Beraz, begi-bistakoa da foru lege hau oso beharrezkoa dela. Are gehiago, kontuan hartzen badugu gaiari buruzko lege-xedapenik ez dagoela; Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan (LORAFNA) ez da gaia ukitzen, ezta ondorengo foru legeetan ere. LORAFNAk gaiari buruz egiten duen erreferentzia bakarra 5. artikuluan dago, nafar izaera politikoa aipatzen duenean, 2. puntuan honela azaltzen duena: "Atzerrian bizi eta beren azken auzotasun administratiboa Nafarroan izan duten espainiarrek, Nafarroan bizi direnek dituzten eskubide politiko berberak izanen dituzte. Halaber, haien ondokoek ere eskubide horiek izanen dituzte, espainiar gisa izena emanda badaude eta horrela eskatzen badute Estatuko legeriak zehazten duen gisan".

Azaldutako arrazoiez gain, esan behar da botere publikoek duten betebeharra ere bete behar dela. Betebeharrak Konstituzioak ezartzen du, baldintza egokiak sustatzeko, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin; horretarako, berdintasun horren osotasuna eragozten edo zailtzen duten oztopoak kendu behar dira, eta gizabanako guztiek bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte har dezaten erraztu behar da.

Beraz, foru lege honen helburua da harreman instituzionalak sendotzea kanpoan bizi diren nafar herritarrekin, eta kolektibo horretako partaide direnei laguntza, zaintza eta babesa emateko jarduketara-ildo oinarritzkoak zehaztuko dituen euskarri juridikoa ezartzea. Horrekin lortu nahi da Foru Komunitatetik kanpo bizi diren nafarren afektuzko loturak gorde eta sustatzea, bai eta Nafarroako bizitza sozial, kultural, ekonomiko eta politikoan parte har dezaten ere, kanpoan bizi diren nafarrek mantentzen eta zabalitzen segi dezaten, egun bizi diren lurraldeetan, nafar kultura eta nortasuna, halatan Nafarroaren kanpo-irudiari bultzada emate aldera.

Foru lege honek 13 artikuluko, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen dauka. Erregulazioaren xedea eta aplikazio-eremu subjektiboa definitu eta horren printzipio orokorrak eta oinarritzko helburuak aldarrikatu eta gero, kanpoan bizi diren nafarrek gizabanako gisa dituzten eskubideak ezartzen dira (1. artikulutik 6.era), Kanpoko Herritar Espainiarren Estatutuari buruzko abenduaren 14ko 40/2006 Legeak dioena ezertan galarazi gabe.

7. artikulua itzuleraren gaiari heltzen dio; alde batetik, administrazioa konprometitzen du borondatezko itzulera errazten duten neurriak sustatzera, eta bestetik, itzuli direnei eta itzulera prozesuan daudenei zerbitzu publikoetarako sarbidea bermatu nahi die, Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren gainerako herritarren baldintza berberetan.

8. artikulutik 11. artikulura bitartean, kanpoko nafar komunitateak eta horien balizko federazioak arautzen dira, eta baldintza jakin batzuk ezartzen dira, bete beharrekoak izanen direnak Nafarroako Gobernuak talde horiek ofizialki aitortzeko eta 11. artikuluan arautzen den erregistro ofizialean inskribatuak izateko. Gainera, elkarte izaerako entitateak diren aldetik dagozkien eskubideak eta betebeharrak ezartzen dira.

12. artikuluan Nafar Komunitateen Kontseilua sortzen da, organo aholku-emaile eta partaide-tzarako organoa gisa. Izaera horretako funtzioak esleitzen zaizkio, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren barruan kanpoko nafar herritarrekiko harremanen arloko eskumena duen departamentura atxikitzen da. Azkenik, haren osaera, antolaketa eta funtzionamendu-araubidea zehazten dira.

13. artikulua jorratzen ditu lortu nahi diren helburuak erdieste aldera aurreikusten diren Estatuturikiko, beste herrialde batzuekiko edo autonomia erkidegoekiko lankidetzako tresnak.

Xedapen iragankorrean araubide iragankor bat jasotzen da, Espainiako beste eskualde batzuetan edo beste herrialde batzuetan dauden etxe, biltoki eta zentro nafar eta euskal-nafar guztiek kanpoko nafar komunitate gisa aitortza ofiziala izateari buruzkoa, foru lege honetan ezarritako Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofizialean inskribatuak izate aldera.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da arauak ematea Nafarroako Foru Komunitateak eta haren gizarte zibilak eta erakundeek Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldetik kanpo dauden nafar herritarrekin eta komunitateekin dituzten harremanen sustapen, koordinazio eta sendotzeari buruz, bai eta esparru juridiko bat ezartzea ere, komunitate horien partaideentzako laguntza, urgazpena eta babesa errazteko oinarrizko jarduketako jarduketak zedarrituko dituenak.

2. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa. Kanpoko nafar herritarrak.

Foru lege hau kanpoan dauden nafar herritarrei aplikatuko zaie. Foru lege honen ondorioetarako, hauek dira aipatu nafar herritarrak:

1. Kanpoan dauden nafarrak, bertan sarturik:

a) Nafarroako forudunaren izaera zibila eduki-rik, Foru Komunitatetik kanpo bizi direnak, Espainiako lurraldean nahiz atzerrian.

b) Espainiako herritarrak, Espainian izan duten azkeneko erroldatzea Nafarroako udalerriri batean izan dutenak, baldin eta kanpora joan baldin badira aldi baterako, joan-etorri askerako eskubidea baliatuz joan direnak barne.

c) Atzerrian bizi diren espainiarrak, Espainian izan duten azkeneko erroldatzea Nafarroako udalerriri batekoa izanik zertzelada hori kasuan kasuko Espainiako kontsulatuan frogatzen dutenak.

d) Aipatutako pertsona horien ahaideak; hau da, legez bananduta ez dagoen ezkontidea edo ezkontzaren pareko lotura bitarteko bikotekidea, bai eta horien ondorengoak ere, espainiar gisa izena emanda badaude eta horrela eskatzen badute Estatuko legeriak zehazten duen gisan.

2. Beste edozein arrazoiengatik Nafarroari lotuta sentitzen diren eta foru lege honetan araututako kanpoko nafar komunitateren bateko bazkide diren pertsonak, beren herritartasun pertsonala edozein dela ere.

3. artikulua. Definizioak.

Foru lege honek ezartzen duenari begira, honela ulertuko dira:

a) Kanpoko nafar herritarrak: Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo bizi diren pertsonak, Foru Komunitatearekin lotura berezia daukatenak.

b) Kanpoko nafar komunitateak: irabazi-asmorik gabeko elkarte izaeradun erakunde edo entitateak, zeinek nortasun juridiko propioa baitute eta Nafarroako lurraldetik kanpo legalki eratuak baitira, haien estatutu-helburuak eta jardun arrunta batez ere Nafarroarekin loturak mantentzera eta foru lege honen helburuak lortzera bideratuta egonik eta, betiere, lege honetan xedatutakoaren araberatik.

c) Kanpoko nafar komunitate birtualak: Nafarroarekin lotura izaten jarraitzeko xedez informazioaren eta komunikazioaren teknologiekin bat sortutako sareak, foru lege honen xedek lortzera bideratuak, eta legean xedatutakoarekin bat aitortuak direnak.

d) Itzulitako pertsonak: foru lege honen 2.1 artikuluan aipatzen direnak, beren egoitza iraunkorra Nafarroako Foru Komunitatean finkatzen dutenak, benetako itzuleraren datatik atzera Espainiaz beste herrialde batean gutxienez urtebetez bizi izan ondoren.

e) Itzultzeko prozesuan dauden pertsonak: foru lege honen 2.1 artikuluan aipatzen direnak, modu fede-emailean frogatzen dutenak Nafarroara itzuliko direla Nafarroako Foru Komunitatearen prestazio edo onura sozialen eskaera formalizatzen den urtean, baldin eta Espainiaz beste herrialde batean eskaera horren eguna baino gutxienez urtebete lehenagotik bizi badira.

4. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan eta dituzten aurrekontu-baliabideen arabera, foru lege honen helburuak lortzearen alde eginen dute.

2. Nafarroako Foru Komunitateak uste du kanpoko nafar komunitateak eta kanpoko nafar komunitate birtualak aktibo bat direla Nafarroako ondasun komunarentzat, paper garrantzizkoa jokatzeko baitute Nafarroako Foru Komunitatearen kanporanzko proiektzioan eta Nafarroaren nortasun-ezaugarriak ezagutarazteko lanean, eta dinamizatzailerak direlako Foru Komunitateak kanpoko komunitate horiek kokatuta dauden autonomia erkidegoekin eta herrialdeekin dituen harreman kultural, sozial eta ekonomikoetan. Hori horrela, solaskide nagusitzat hartuko dira kanpoan dauden nafar herritarrei buruzko gaietan.

5. artikulua. Helburua.

Hauek dira foru lege honen helburu nagusiak:

a) Kanpoko nafar komunitateen indartze eta garapenari laguntzea, beren barne kohesioari eta elkartegintzaren eraginkortasunari mesede eginez.

b) Kanpoko nafar komunitateen arteko eta komunitate horien eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko loturak zaindu eta indartzea, haien kideen lotura afektibo, ekonomiko, sozial, linguistiko eta kulturaleri eusten lagunduz, haiek beren bizitokietan nafar kultura eta nortasuna mantentzen, lantzen eta transmititzen jarraitu ahal izan dezaten.

c) Kanpoan bizi diren nafarrei urgazpena, laguntza eta babesa ahalbidetzea.

d) Kanpoan dauden nafarrek Nafarroako bizi-tza sozial, kultural, ekonomiko eta politikoan parte har dezaten bultzatzea eta erraztea.

e) Neurriak hartzen laguntzea, erraztuko dutenak kanpoan dauden nafarrak beren borondatez Nafarroako Foru Komunitatera itzultzea.

f) Kanpoan bizi diren nafarrak hartu dituzten herrialdeetako eta autonomia erkidegoetako erakundeekiko eta gizarte eragileekiko harreman sozial, kultural eta ekonomikoak sustatzea.

g) Nafarroak kanpoan duen irudia bultzatzea, baita bere nortasuna eta kultura ere, eta Nafarroak dauzkan aukera ekonomiko, turistiko eta komertzialak ezagutaraztea, kanpoan bizi diren nafarren erakundeekin horretarako elkarlanean arituz.

h) Kanpoan dauden nafarren komunitateen eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko harreman-bide egonkor eta eraginkorrak sustatzea, oro har.

i) Migrazio-fenomenoa eta Nafarroarentzat duen garrantzia balioan jartzea. Horretarako, zenbait ekintza jorratuko dira nafar diasporaren memoria historikoa ikusgai egiteko, barne harturik bai frankismoak errepresaliatutako pertsonak eta horren ondorioz iheslari izandakoak bai talde terroristen ekintzen ondorioz Nafarroatik alde egin behar izan zutenak. Bereziki landuko dira emakumezkoek diaspora horretan egindako ekarpen historikoa balioan jarri eta ikusgai egiteko ekintzak.

6. artikulua. Kanpoan dauden nafarren eskubideak

1. Foru lege honen 2.1 artikuluan aipatzen diren kanpoko nafarrei, orokortasunez honako eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Nafarroako kultur ondarea eskuratzeko eskubidea, bereziki liburutegietakoa, artxiboetakoa, eta museoetakoa, bai eta beste ondasun kultural batzuk ere, Nafarroan bizi diren herritarrek dituzten baldintza berberetan.

b) Nafarroako administrazio publikoen titulartasun edo kudeaketakoak diren jolas eta kirol zentroetara sartzeko eskubidea, bereziki gazteriari eta hirugarren adinekoei zuzenduetara, Nafarroan bizi diren herritarren baldintza berberetan.

c) Nafarroako kultura, hizkuntzak eta historia Nafarroan bizi diren herritarren baldintza beretan ezagutu eta ikasi ahal izateko eskubidea. Horretarako, eta bere aurrekontu-baliabideen barruan, Nafarroako Gobernuak behar diren bitartekoak jarriko ditu eskubide hori gauzatu ahal izateko jarduerak antolatzeke.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aldetik entzunak izateko eskubidea, foru

lege honek arautzen duen Kanpoko Nafar Komunitateen Kontseiluaren bidez.

e) Nafarroako Foru Komunitateko bizitza sozial eta kulturalean beren ezagutza eta esperientzia eskainiz parte hartu ahal izan dezaten beharrezkoak diren baldintzak sustatuak izateko eskubidea.

f) Politika, elkartegintza, kultura, gizarte eta ekonomiako parte-hartzearen esparru guztietan gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzea helburutzat duten Nafarroako Gobernuaren jarduketetara sarbidea izateko eskubidea.

g) Nafarroako Foru Komunitatean gizarte, lan, kultura eta hezkuntza arloetan aitortzen zaizkien eskubideei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

h) Nafarroako Foru Komunitatearen araudi propioak aitortzen dien beste edozein.

2. Eskubide horiek baliatzen eta ezagutzen laguntzeko, Nafarroako Gobernuak bultzatuko du kanpoan bizi diren herritarrek izena eman dezaten kanpoan bizi diren nafarren borondatezko erregistro batean, eta sustatuko du komunikaziorako bide teknologikoen sorrera eta garapena, bai eta sare sozialen erabilera ere, komunikaziorako beste bide batzuen osagarri, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legean ezarritakoa kontuan hartuta.

7. artikulua. Itzulera.

1. Foru lege honen ondorioetarako, itzulera izanen da 2.1 artikuluan aipatzen diren pertsonak Espainiatik kanpoko herrialdetik Nafarroako Foru Komunitatera etortzea, bertan beren egoitza iraunkorra ezartzeko asmoz.

2. Nafarroako Gobernuak, toki entitateekin elkarlanean, kanpoan bizi diren nafarrak Nafarroara beren borondatez itzultzea errazteko politika integrala sustatuko du.

3. Itzuli diren edo itzultzeko prozesuan dauden nafarrei honako eskubide hauek aitortzen zaizkie, aurreko artikuluan ezarritako eskubideez gain:

a) Itzultzeko aukeren berri izateko eskubidea eta Nafarroako Gobernuak horretarako eskaintzen dituen zerbitzuen aholkularitza jasotzekoa. Horretarako, Nafarroako Gobernuak berariazko neurriak hartuko ditu borondatezko itzulera errazteko eta itzuli direnen gizarteratzea bultzatzeko.

b) Hezkuntza-konpentsazioko planak eskuratzeko eskubidea, itzuleraren ondorioz hezkuntzan gerta daitezkeen desberdintasun egoerei aurrea

hartzeko. Halaber, eskubidea dute aholkularitza jasotzeko kasuan kasuko herrialdeko unibertsitate- nahiz unibertsitatez kanpoko titulu eta ikasketak ofizialak araudi indardunari jarraikiz Nafarroako Foru Komunitateko titulu eta ikasketak ofizialei homologatzeko aukerari buruz.

c) Nafarroako Gobernuak etxebizitza babestutzat kalifikatuak diren sarbidea edukitzeko eskubidea, gaiari buruzko berariazko araudiak kasua bada ezartzen dituen baldintzetan eta betekizunekin, eta itzuleraren kariaz.

d) Informazio soziolaboraleko ekintzetan eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren programetan parte hartzeko aukera izatea.

4. Itzuli diren edo itzultzeko prozesuan dauden pertsonen Nafarroako Gobernuak bermatuko die dauden prestazioak edo onura sozialak izateko aukera, hala nola seme-alaben eskolatzeta, etxebizitza publikoaren eskaintza, osasungintza-zerbitzuak, oinarritzko errenta, egoitzetako postuak eta abar, Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren gainerako herritarrek dituzten baldintza berberetan.

Horretarako, itzuli diren edo itzultzeko prozesuan dauden nafarrek zilegi izanzen dute prestazio edo onura sozial horiek jasotzea frogatu beharrik izan gabe Nafarroako Foru Komunitatean lehenagotik bizi direla, betekizun hori eskatzen den kasuetan, baldin eta gainerako baldintzak betetzen badituzte eta denbora-epe batean zehar Espainiatik kanpo bizi izan badira, jarraian eta itzuleraren unera arte –itzuli direnen kasuan–, edo prestazio edo onura soziala eskatu den arte –itzultzeko prozesuan daudenen kasuan–, denbora-epe hori emigrante ez direnei eskatzen zaien aurretiazko egoiliar-aldia adinakoa edo luzeagoa bada.

Nafarroan lehenagotik bizitzeko betebeharretik salbuetsirik egotearen iraunaldia izaten ahalko da betekizunean bertan aipatzen den epea adinakoa, itzuli direnen kasuan itzuleratik kontaktatzen hasita, edo prestazio edo onura soziala eskatzen den egunetik kontaktuta, itzultzeko prozesuan dauden emigranteen kasuan.

5. Foru lege honen ondorioetarako, ez dira atzerrian bizi izandako denboratzat hartuko atzerrian egindako egonaldi laburrak, horien arrazoia denean ikasle-mugikortasuna, kanpamentuak, oporrak, turismoa edo antzeko beste zeregin ludiko bat. Era berean, ez dira bizi izandako denboratzat hartuko atzerrian egindako ikasketekin lotutako praktikaldiak, edo boluntario gisa nahiz ordainsari ekonomikorik ez dakarren beste edozein modutan emandako zerbitzuen aldiak.

8. artikulua. Kanpoko nafar komunitateak.

1. Entitate batek, kanpoko nafar komunitatetzat aitortua izateko eta foru lege honetan arautzen diren onurak eta prestazioak lortzeko, honako baldintza hauek betetzen dituela egiaztatu behar du:

a) Nortasun juridiko propiodun eta irabazi-asmorik gabeko entitate bezala eratua izatea, bere lege pertsonalaren arabera aplikatzekoa den ordenamendu juridikoarekin bat.

b) Bere batzar nagusi edo gobernu-organo gorenaren erabakiz oinarrizko estatutu-helburuen artean sartuta edukitzea lotura kultural, sozial edo ekonomikoen mantentzea Nafarroako Foru Komunitatearekin, bertako jendearekin, historiarekin, hizkuntzekin eta kulturarekin, bai eta bertako errealitatearen beste edozein alderdirekin ere.

c) Kanpoan bizi diren nafarrak edo nafar jatorrizkoak era zabalean bilduko dituen proiektu plural bat garatzeko asmoa izatea, alde batera utzita nondik datozen, gizarte-maila, edo ideologia-nahiz alderdi-aukera.

d) Barne egitura, antolamendua eta funtzionamendua irizpide demokratikoen arabera izatea.

2. Honako hauek ezin izanen diote inola ere heldu foru lege honetan ezarritakoari: izaera sekretua edo paramilitarra duten entitateek; alderdi politiko, sindikatu edo erakunde enpresarialek; eliza, konfesio edo komunitate erlijiosoek; kirol federazioek; kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteek eta lege berezietan arautzen den beste edozeinek; beren helburuak lortzeko bitarteko baketsu edo demokratikoak erabiltzen ez dituztenek edo gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren printzipioa errespetatzearen aurka doazenek; eta Espainiako ordenamendu juridikoaren arabera helburu ez-zilegiak dituzten gainerako guztiek.

3. Nafar komunitateen izenak ezinbestean jaso behar du Nafarroa edo Navarra hitza, edo horien eratorkin bat.

Ez da onartuko iraingarri gerta litekeen izenik, ez eta foru lege honen helburuekin bat ez datorrenik ere.

4. Entitate bat kanpoko nafar komunitate gisa aitortzea erabaki baten bidez egingen du Nafarroko Gobernuak, Nafar Komunitateen Kontseiluak alde aurretik txostena eginda, eta entitate interesdunak eskatuta.

Aitortua izateko eskaerari hauek erantsiko zaizkio:

a) Entitatearen estatutuen kopia kautotua edo konpultsatua, bai eta frogagiriak ere, entitatearen eraketari eta nortasun juridikoari buruzkoak eta, kasua bada, dagokion erregistroan eginiko inskripzioari buruzkoak ere.

b) Entitatearen batzar orokorrak edo gobernu-organo gorenak hartutako erabakia, aitortza eskatzeko borondate esanbidezkoari buruzkoa.

c) Oroitidazki bat, egindako jardueren eta etorkizunerako proiektatzen direnen berri ematen duena.

d) Entitateko zuzendaritza-organoen osaerari buruzko ziurtagiria eta bazkide-zerrenda.

5. Kanpoko nafar komunitatetzat aitortutako entitateak ofizios inskribatuak izanen dira foru lege honetan aurreikusitako Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofizialean.

6. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du kanpoko nafar komunitatearen aitortza atzera botatzea, hark artikuluko honen 1. apartatuan zehazten diren baldintzak betetzen ez baditu, denbora luzez jarduerarik ez badu, inskripzioan agertzen diren datu edo dokumentuak faltsuak direla deklaratu duen epai judizial irmorik badago, erakunde eskudunek entitatearen eraketa egokirako behinola emandako nahitaezko baimenak ezeztatzen edo eragingabetzen badira, edo Nafarroako Foru Komunitatean dirulaguntzen alorreko araudi indardunak arau-hauste oso astuntzat tipifikatzen dituen egiteak edo ez-egiteak edo erregelamenduz zehazten diren beste batzuk gauzatzen badira.

7. Honako eskubide hauek aitortzen zaizkie kanpoko nafar komunitateei:

a) Haiek beren helburuak bete ahal izateko jardueretarakoak diren Nafarroako administrazio publikoan dirulaguntza eta laguntza publikoetarako deialdietan parte hartzeko eskubidea.

b) Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak nafar komunitateen interes zehatzekoak diren gaietan jaulkitzen dituzten xedapenei eta ebazpenei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

c) Nafarroari buruzko funts editorial eta ikus-entzunezko bat eskueran edukitzeko eskubidea, horren bitartez Nafarroako historiari, hizkuntzei, kulturari, turismoari, kultur ondareari eta gizarte errealitateari buruzko ezagutza bideratzeko.

d) Nafarroako bizitza kultural, linguistiko, sozial eta ekonomikoaren adierazpide desberdinetan parte hartzeko eskubidea, horrela bizitza horren kanporanzko proiektzioan laguntzeko.

e) Kanpoko Nafar Komunitateen Kontseiluan ordezkatuta egon eta erakunde horretan entzunak izateko eskubidea.

f) Komunitateek Nafarroako kulturaren sustapenerako antolatzen dituzten jardueretan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak parte har dezan lortzeko eskubidea.

g) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan eta aurrekontuek ahalbidetzen duten heinean, zerbitzu telematiko eta informatikoak emateari dagokionez berriazko tratamendua eman eta bermatuko die komunitate horiei, horrela informazioaren berriematea eta haien kideek hori eskuratu ahal izatea erraztearren.

8. Kanpoko nafar komunitate aitortuek betebeharrak hauek edukiko dituzte:

a) Kanpoan dauden nafarrentzat eta kasuko lurralde-eremuan dauden nafar jatorriko pertsonentzat Nafarroako administrazio publikoek bultzatutako programetan laguntzea.

b) Beren lurralde-eremuko nafarrak, botoa emateko eskubidea daukatenak, Nafarroan egiten diren hauteskunde-prozesuetan parte hartzera animatzea.

c) Kanpoko nafar komunitateen egoeraren berri Nafarroan emateko jardueretan laguntzea, dauden komunikabide eta plataformen bitartez.

d) Gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea, elkarte-mugimenduaren jarraipena bermatzeko.

e) Kokatuta dauden lurralde-eremuan Nafarroako erakundeek antolatzen dituzten programa, misio eta delegazioetan ekinbidez parte hartzea.

f) Nafarroako kultura bere kideen artean mantentzen eta zabaltzen laguntzea.

g) Nafarroako Gobernuarengandik eta Nafarroako gainerako erakundeengandik jasotzen duten informazioa beren kideen artean zabaltzea.

h) Ekinbidez laguntzea Nafarroako Foru Komunitatearen kanporanzko proiektzioa bultzatzen.

i) Ondare dokumentala, immateriala eta higigarria inbentariatzea, hura aitortzeko, zaintzeko eta ezagutarazteko.

9. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, foru lege honen helburuen mugartean, ekarpena egiten du kanpoko nafar komunitateen mantentzerako, urteroko dirulaguntza-programen bitartez, bideratuko direnak haien funtzionamendu-gastuetara, haien egoitza sozialen

azpiegiturak erosi, alokatu, hobetu eta mantentzeko gastuetara eta haien jardueretara.

10. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, lege honen helburuen mugartean, ekinbidezko lankidetzan arituko da kanpoan bizi diren herritarren arloan aritzen diren Espainiako Gobernuaren menpeko erakundeekin.

9. artikulua. Kanpoko nafar komunitate birtualen aitortza ofiziala.

1. Erregelamenduz zehaztuko dira kanpoko nafar komunitate birtualei aplikatzekoak diren berezitasunak, hala nola haien eraketa eta funtzionamendua eta errebokatze-irizpideak.

2. Betiere Nafarroako Gobernuaren erabaki bidez egiten da kanpoko nafar komunitate birtual baten aitortza, eta Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofizialean inskribatu beharko da.

3. Aitortzen diren eta Erregistroan inskribatzen diren kanpoko nafar komunitate birtualei dagozkien kanpoko nafar komunitateei aitortzen zaizkien eskubide eta betebeharrak.

10. artikulua. Kanpoko nafar komunitateen federazioak.

1. Kanpoko nafar komunitateek federazioak eratu ahal dituzte, beren interesak defendatu eta integratzeko, eta beren helburuak eta xedeak elkarrekin eta koordinatuta erdiestea errazteko.

2. Kanpoko nafar komunitateen federazioek, foru lege honetan jasotzen diren prestazioen onuradun izateko, Nafarroako Gobernuaren aurretiazko aitortza beharko dute eduki.

3. Entitate horiek aitortzeko, kanpoko nafar komunitateak aitortzeko ezarritako betekizun eta prozedura berberak bete beharko dira.

11. artikulua. Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofiziala.

1. Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofiziala sortzen da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen artetik kanpoko nafar herritarrekiko harremanen gaineko esku-ena duen departamentuari atxikita.

2. Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofizialean ofizios inskribatuak izanen dira Nafarroako Gobernuak aitortzen dituen kanpoko nafar komunitateak eta federazioak, eta kanpoko nafar komunitate birtualak, foru lege honek ezartzen duenari jarraikiz.

3. Kanpoko nafar komunitateek hauexek komunikatu beharko dizkiote Erregistroari:

a) Beren estatutuen aldaketa.

b) Lehendakaritzaren, zuzendaritza-batzordearen edo beste edozein zuzendaritza-organoren osaeraren aldaketa.

c) Beren posta- eta telefono-datuen eta datu telematikoen aldaketa.

d) Entitatearen bazkide-zerrendan urtero izandako altak eta bajak.

4. Artikulu honetan aipatzen diren gorabeherak ez komunikatzeak ondorio gisa ekarri ahalko du foru lege honek kanpoko nafar komunitateentzat ezartzen dituen eskubideak etenda uztea.

5. Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistroak bi atal edukiko ditu. Bata izanen da egoitza soziala Espainiako beste lurralde batean duten nafar komunitateentzat, eta bestea, atzerrian dauden nafar komunitateentzat.

12. artikulua. Nafar Komunitateen Kontseilua.

1. Nafar Komunitateen Kontseilua sortzen da Nafarroako Foru Komunitatean, organo aholku-emaille gisa parte hartzekoa kanpoko nafar herritarrekiko harremanen arloan.

2. Nafar Komunitateen Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Gobernuari aholku ematea kanpoko nafar komunitateekiko harremanetan jorrazten dituen ildo orokorrei, helburuei eta berariazko ekimenei buruz.

b) Kanpoko nafar komunitateen eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko harremanen egoerari eta gorabeherari buruzko txostenak eta ebaluazioa egitea.

c) Nafar komunitateen harremanak sustatzea, beren artekoak, Nafarroarekikoak nahiz Nafarroako erakundeekikoak.

d) Neurriak edo ekimenak proposatzea, kanpoko nafar komunitateen aurrerabidea, hobekuntza eta ongizatea ekarriko dutenak.

e) Ordenamendu juridikoak esleitzen dion beste edozein.

3. Nafar Komunitateen Kontseilua atxikiko zaio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan kanpoko nafar herritarrekiko harremanen arloko eskumena duen departamentuari. Aipatu departamentuak kontseiluari horrek bere eginkizunak betetzeko behar duen laguntza teknikoa eman beharko dio.

4. Nafar Komunitateen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzioamenduaren erregelamenduzko zehaztapena foru dekretu baten bidez eginen da. Zer departamenturi dagoen atxikia, departamentu horretako titularra izanen da kontseiluburua. Kontseiluak betiere honako kide hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak.

b) Kanpoan dauden nafarren komunitateen ordezkariak, erregelamenduz zehazten den moduan eta parekotasun-printzipioari jarraikiz hautatuak.

c) Nafarroako Parlamentuaren ordezkariak, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan hautatuak.

5. Nafarroako Komunitateen Kontseilua eratu ondoren, kontseilukideen agintaldia lau urtekoa izanen da, eta iraupen bereko aldiatarako berritu ahal izanen da.

6. Nafarroako Komunitateen Kontseiluak gutxienez ere urtean behin eginen du ohiko bilkura, eta ezohiko bilkura kontseiluburuak egoki irizten dionean, bai eta, betiere, kideen herenak hala eskatzen duenean. Zilegi izanen da bilkuretan telematikoki parte hartzea, kideek hala eskatuz gero.

7. Nafarroako Komunitateen Kontseiluan parte hartzeak ez du inolako ordainsaririk ekarriko ezein kasutan.

13. artikulua. Elkarlan eta lankidetzarako tresnak.

1. Nafarroako Gobernuak lankidetzarako mekanismoak ezarri ahal izanen ditu Espainiako Gobernuarekin, nafarrak edo nafar jatorria duten pertsonak bizi diren beste estatu batzuekin nazioarteko hitzarmenak edo tratatuak egiteko, Nafarroarekin duten lotura gal edo ahul ez dadin eta, kasua bada, haiek Nafarroara itzuli edo immigratzeko erraztasunak emate aldera.

2. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoan aurreikusitakoari jarraikiz hitzarmenak egitea autonomia erkidegoekin, Espainiako herri desberdinen arteko kulturarteko harremanak sustatzekoak eta erkidego horietan bizi diren nafarrei eta nafar jatorriko pertsonen aholkua eta laguntza ematekoak.

Xedapen iragankor bakarra. Kanpoko nafar komunitateen araubide iragankorra.

Espainiako beste eskualde batzuetan edo beste herrialde batzuetan dauden nafar komunitateek, hain zuzen foru lege honek indarra hartzean etxe, biltoki edo zentro nafar edo euskal-nafartzat edo antzekotzat aitortuta daudenek, kanpoko

nafar komunitate gisa ofizialki aitortuak izatea eskatu beharko dute aipatu datatik aurrera zenbatutako bi urteko epean, inskribatuak izan daitezen foru lege honek ezarritako Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofizialean. Epe horretan zehar, foru lege honek ezartzen dituen eskubideak eta betebeharrak izanen dituzte.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden legedo erregelamendu-mailako xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamenduak egiteko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege honen erregelamenduzko garapenerako arauak jaulkitzeko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-23/MOC-00012. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, LGTBI+ pertsonen arreta integrala emateko Kattalingune zerbitzua ematen jarrai dezan, 2022ko abendura arteko kalitate-parametroak mantenduz edo hobetuz, horretarako behar diren giza baliabide eta baliabide ekonomikoekin hornituta.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, LGTBI+ pertsonen arreta integrala emateko Kattalingune zerbitzua ematen jarrai dezan, 2022ko abendura arteko kalitate-parametroak mantenduz edo hobetuz, horretarako behar diren giza baliabide eta baliabide ekonomikoekin hornituta”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, LGTBI+ pertsonen arreta integrala emateko Kattalingune zerbitzua ematen jarrai dezan, 2022ko abendura arteko kalitate-parametroak mantenduz edo hobetuz, horretarako

behar diren giza baliabide eta baliabide ekonomikoekin hornituta.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, murrizketarik egin ez dezan aipatu Kattalingune zerbitzuan, ez kontratatutako langileez (zazpi profesional) ez 2023rako Nafarroako Aurrekontuetan hasiera batean esleitutako partida ekonomikoaz (248.000 euro) bezainbatean.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, zerbitzuko profesionalen entzun eta LGTBIQ+ kolektiboek egindako ekarpenak aintzat har ditzan zerbitzuar buruzko erabaki garrantzitsuak hartu baino lehen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/MOC-00018. Erabakia gerrari eta haren ondorioei buruz.**OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia gerrari eta haren ondorioei buruz”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak gerrak arbuiatu egiten ditu gatazkak konpontzeko modu gisa.

Nafarroako Parlamentuak giza eskubideen urraketak salatzen ditu, edozein dela ere haien jatorria, eta bereziki, emakume eta nesken gorputzen bortxaketak eta horiek gerra-arma gisa erabiltzea.

Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu su-eten bat lortzera eta negoziazioak hastera zuzendutako ahaleginak.

Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu gerretatik eta haien ondorioetatik ihesi doazenak, edozein dela ere haien jatorria edo erlijioa.

Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu egun Ukrainan bizi den gerraren lehen urteurrenaren harira eginen diren mobilizazioak.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du klima-aldaketaren aurka borrokatzeko ahaleginak birbideratu eta justizia ekosozial global bat bultzatu dezan”.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/MOC-00020. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazteriaren errealitatera egokitzeko.**OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazteriaren errealitatera egokitzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du

1. Droga-mendekotasunari eta adikzioei buruzko III. Plana eguneratu dezan, Nafarroako gazteriaren errealitatera egokitzeko.

2. Jarri beharreko baliabideak jar ditzan eguneratze hori egiteko kasuan-kasuko berariazko programen, sentsibilizazio kanpainen eta nafar gazteei zehazki bideratutako beste programa batzuen bidez.

3. Aldaketa horiek Nafarroako Gazteriaren Institutuaren oniritziarekin egin daitezzen, hori baita organo eskuduna eta zeharkakoa Nafarroan gazteriaren arloko politiketan.

4. Gazteendako aisialdi-zentro alternatiboen sorrera bultzatzea, toki-entitateekin elkarlanean eta komunitate-babesaren ikuspegitik abiatuta”.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/MOC-00008. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan musika-ikasketa profesionalak Nafarroatik kanpo egiten dituzten ikasleen ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatzeko.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2023ko otsailaren 15ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak har ditzan musika-ikasketa profesionalak Nafarroatik kanpo egiten dituzten ikasleen ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio beharrezkoak diren neurriak har ditzala musika ikasketa profesionalak Nafarroatik kanpo egiten dituzten ikasleei ekitatea eta aukera berdintasuna bermatzeko, ordaindu beharreko tasen prezioan aldea handia denean nolabaiteko konpentsazioa eginez, izan lankidetzaren formularen bat bilatuz, izan musika eskolei ematen zaien dirulaguntzetan lurralde kohesioaren irizpidea ere txertatuz, edo egoki ikusten den moduan”.

Iruñean, 2023ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/MOC-00009. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen da berdintasun-teknikarien sarearen egoera hobetzeko proposamen bat egin dezan.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeak, 2023ko otsailaren 14an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen da berdintasun-teknikarien sarearen egoera hobetzeko proposamen bat egin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Berdintasunerako Institutua premiatzen du ahalik eta lasterren:

1. Berdintasun-teknikarien sarearen egoera hobetzeko proposamen bat egin dezan, baita figura horren hedapen progresiboa egitekoa ere, modu batean edo bestean sarea Nafarroako Foru Komunitate osoan bermatuta egon dadin.

2. Planifikazio bat egin dezan, arian-arian lanpostu horien epe luzerako egonkortasuna berma dadin.

3. Koordinazio-esparru finkoa sortu dezan, legeak ezartzen dituen edukiak lantzeko eta horiek toki entitateetan eta mankomunitateetan gauzatu ahal izateko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Albait lasterren onets dezan Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa eta Nafarroako toki entitateak koordinatzeko batzordea sortzeko foru dekretua.

2. Aipatu batzorde horretan estrategia bat adostu dezan, berdintasuneko agentearen figura sendotu eta zabaltze aldera udal edo mankomunitate guztietan, bertan erabakitzeko administrazio bakoitzaren lankidetzaren esparrua –hala ekonomikoa nola laguntza teknikoari dagokiona–, bai eta egonkortasuna ere”.

Iruñean, 2023ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**10-21/MOC-00044. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-
tzen da bere gain har dezan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko hau-
rren eskolatzak familientzat duen kostua.**

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko otsailaren 16an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da bere gain har dezan Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko haurren eskolatzak familientzat duen kostua”. Mozioa Pedro José González Felipe jaunak aur-

keztu zuen eta 2021eko martxoaren 2ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**10-23/MOC-00015. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premia-
tzen da berehala har ditzan bere gain, bere aurrekontuaren kontura,
Iruñeko eta Iruñerriko begizta desagerrarazteko obra guztiak, Etxaba-
koitzeko tren-geltoki berriko obrak eta Volkswagen Navarra zeharka-
tzen duen trenbidea desagerrarazteko obrak barne.**

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko otsailaren 16an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premia-tzen da berehala har ditzan bere gain, bere aurrekontuaren kontura, Iruñeko eta Iruñerriko begizta desagerrarazteko obra guztiak, Etxabakoitzeko tren-geltoki berriko obrak eta Volkswagen Navarra zeharkatzen duen

trenbidea desagerrarazteko obrak barne”. Mozioa Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu zuen eta 2023ko otsailaren 15eko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

